

egunekoa

Joseba Azkarraga

(Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza sailburua)

Atea ixtetik giltzarria ematera

Ez da aurrekontuen blokeoa soilik. Batik bat Legebiltzarri egindako blokeoa da. Argi geratu behar da, iruzur eta nahasketarik gabe, oposizioko alderdiek, PP, PSE eta Batasunak, bat egin dutela sistema demokratikoaren oinarritzko erakundea, herritarrek aukeratutakoa, bere esku utzitako funtzioak garatu ezinean uzteko. Begi-bistakoa da, beraz, *popularrek* eta *sozialistek* Batasunaren laguntza dutela politika ez egiteko. Legebiltzarreko azken bi jardunaldiotan —hilaren 14an, ostirala, eta hilaren 18an, asteartea— gertatu dena ez baita politika.

Eusko Alderdi Jeltzaleko, Eusko Alkartasuneko eta Ezker Batuko ordezkariak ez ditugu ikuskizun lotsagarri honen erantzule. Alderdi horretako legebiltzarkideek garaiz erantzun zieten osoko bilkuren deialdiei. Eusko Jaurlaritza ere ez dugu, inola ere, erantzule; izan ere, jaurlaritzak bete egin baitzuen bere obligazioa, alegia: aurrekontuak —ez ahaztu osagai sozial aurrerakoia hartzen dutela, dudarik gabe— bidaltzeko obligazioa. Ganberako burua ere ez dugu egoera honen arduradun; izan ere, bere atribuzioak era zilegian baliatuz eta legebiltzarreko jarduna bideratzen duen Araudia zuzen interpretatuz, legebiltzarreko hiru taldeek aurkeztutako zuzenketak bozkatzeko prozedura jakin bat ezarri baitzuen.

Non aurkitu, baina, gertatzen ari denaren erantzukizuna? PP, PSE eta

Batasunaren erabakian; euren indarrak batu baitituzte euren botoak batzea saihesteko. Hiru horietatik inork ez dio besteari elkarri lagundu botazioetan, hori bide bakarra izango baitzen Aurrekontuen Lege Proiektua itzultzea behartzeko. Horregatik, hain zuzen, Ganberatik hanka egiten dute, azpikerian hanka egin ere.

Euren jarrera lotsagarria zuritze azken egunotan darabiltzaten argudio ezin defendatuzkoetatik harago jotzeko, beharrezkoa da herritarrek ondorioak ateratzea. Horretarako, ezinbestekoa da gogoratzea zertarako erabili zuten PP eta PSE alderdiek —Aznarrek atzerria doanean egiten

duen moduan— azken hauteskunde kanpaina: abertzaletasuna deabruaren pare jartzeko, hain zuzen, eta, era berean, garai hartan PNV-EA koalizioko lehendakari gaia zenari, Juan Jose Ibarretxeri, Herri Batasuna edo Euskal Herritarrok deitutakolari buruzko iritzia eten gabe eskatzeko. Gogoratu behar da, orobat, Ibarretxek erantzun ezin argiagoa eman ziela: inola ere, ez zuzenean ezta zeharka ere, ez zituela erabiliko HBren botoak hautatua izateko. Gaur, berriro ere, Lehendakariak eta berorri laguntzen dioten alderdiek, inolako dudarik gabe, errepi-

katzen dute ez dutela bilatuko, ezta egingo ere, inolako akordiorik Batasunarekin, orain bezala jarraitzen duen bitartean, alegia, helburu politikoak lortzeko biolentzia erabiltzea gaitzesteri uko egingo.

Hala ere, *popular* eta *sozialistek*, gobernu honen fede demokratiko argia kolokan jartzen ausartzen direnak ere, bat egiten dute Batasunarekin. Ez diot akordio bat landu

duzenik; praktikan jartzen dutela egiaztatzen dut. Hala, PP eta PSE alderdietako zenbait bozera mailek ganberan sartzea ala ez, azken buruan, Batasunaren jarreraren baitan zegoela onartu du.

Egia biluz dezagun. *Popularrek*

eta *sozialistek* ezin dute ukatu giltzarria Batasunaren esku utzi dutenik. Izan ere, talde horrek har ditzakeen erabakietan oinarritzen baitituzte eurek hartu beharreko erabakiak. Lehen, Ajuria Eneko atea gizaki bat hiltzeko arrazoiak badirela ukatzen ez dutenen eskutik, zuzenean edo zeharka, gairiditzeko aukera estigmatizatu zuten. Gaur, ordea, talde berorri eman diote Legebiltzarreko korridorean amarratuta uzteko aukera. Erantzukizuna mozorrotu nahian dabilta, baina ez dago hori estaltzen duen mozorrorik.

GILTZARRIA

‘Popularrek’ eta ‘sozialistek’ Batasunari eman diote Legebiltzarreko korridorean amarratuta uzteko aukera

seiko urrea

Iñigo Aranbarri



Senghor hil da

Harriduraz hartu dut Leopold Sedar Senghor poeta eta Senegalgo lehendakari ohiaren heriotza albiste. Harriduraz diot, gure espainolasunak hilda zegoela sinestarazi didalako beti, hain ezaxol Afrikarekiko. Baina Senghor bizi zen, eta ez Afrikan, Normandian baizik. Hantxe hil da, 95 urte zituela.

Nik ulertzen dut Espainiaren isiltasuna. Ameriketara du Afrika, eta Afrika bera zer izan da Madrilentzat, sekula ondo ulertu ez duen lurralde beltz bat baizik. Afrika frantsesena izan da, ingelesena, portugalesena... Egia da izan dela Ginea bat, Sahara traizionatu bat, Fernando Poo, Ifni... ezer gutxi besteen lapur-poltsaren aldean. Arretarik merezi ez duen

kalderilla hutsa. «Izugarrikeriaren lurraldea», imaginario kolektiboan.

Horregatik, pedagogia hutsagatik besterik ez bada ere egon beharko zukeen bizirik Senghorrek. Europa eta Afrikaren arteko zubi, Fanon baino domestikatuago, Aimé Césaire martinikarra eta Leon Damas guyanesa izan zituen lagun *negrotasunaren* aldarri egiteko. Poetak ziren, irakasleak, medikuak... eta politikoak. European formatuak, kolonizatzailaren kulturaren jabe, Agostinho Netok, Amílcar Cabral, Patrice Lumumbak... jarri zituzten independentziaren bidean estatu deskolonizatuak. Eta Europak ulertzen zituen bere mintzoan hitz egiten zuten *negro* humanista haiek. Ezinbesteko erre-

ferente bilakatu ziren 50-60. hamarkadako europar askapen mugimendu ororentzat. Aljeriako kosta Gorbeiatik ikusten zen. Gainera, ez zituen ezkerak soilik miresten. De Gaullek ere zinez maite zuen Senghorrek frankofoniari egin ekarpena: «*Arte guztietara irekia, eta beraz, politikara ere bai, negrotasunaz bezain harro dago Senghor bere frantses kulturaz*».

Gaur, Senghor hil dela entzun, eta hiltzat nuen poetaren lanak irakurtzen eman dut goiza. Goibeldu egin naiz. Gauzak asko mudatu dira hemen ez ezik munduan ere. Dagoeneko Gorbeiatik ez da Aljer ikusten. Orain ez hainbeste nazioarteko politikan beharrezko distortsioaren ahotsa osatzen zuten «estatu lerratugabeak» mututu egin dira, Nazio Batuen Erakundea bahiturik dago, ments ditu koloreak, eta dena da eremu zabal, bakar, tirano bat.

Gainera, poetek ere galdu dute sasoi bateko *punch* hori. Edo politikoek poesiarako grina, nork daki.

zutabea

Antton Azkargorta



«Deus nao tem unidade...»

...zioen Pessoa. Afganistango gerrak ongi argitu digu erlijio islamiarren ere —gutxienez— bi fede mota daudela, nahiz eta sarritan nahastu, inbokazio berberaren atzean daudelako: «Ala handia da». Alde batetik, Ala jainko lokala, nire tribukoa, nire jauntxo gerlariarena edo nire interes materialena izan daiteke. Horrela bada, Ala hau Dostum uzbekoaren jainkoa da, eta baita ere Rabani tajikoarena, Paxtun herri desberdinena, Talibanena ere bai, eta abar.

Guztiek Ala inbokatzeko dute baina beraien adierazpen eta ekintzek alde militarrek eta diruak duten nagusitasuna erakusten dute. Horregatik erraz aldatzen dituzte lagunak, baina beti dute Ala lagun. Adibidez, Dostumek errusiarren alde egin zuen lehenbizi, gero kontra, ondoren beste afganoen aurka, beranduago Iparreko Aliantza sartu eta orain amerikarren alde ari da. Badago esaera zahar bat: «Afganoak bere burua alokatu egin dezake, baina sekula ez saldu». Jainkoa ere tratatu sartzeko al du? Uste dut jainko hori, trukagarria izanik, lurta-rragia dela, eta interes eskasa duela gizadiarentzat. Arazorik gabe elkartu da Ala hau Bushen «Ongia Gaizkiaren kontrako» jainkoarekin, eta bost axola izan zaio lurralde osoa suntsitzea eta milaka lagun hiltzea.

Bestetik, Ben Ladenen eta «arabe» (txetxenoak, bosnioak, palestinarrek, kaxmirtarrak...) deitzen dituztenen Ala dago: Ala honek ez du lur zati bat eta boterea eskatzen; musulman guztien jainkoa da, zapalduena, alegia: Irak, Palestina, Txetxenia, Bosnia... Bestalde, bere militanteek —suizidek batez ere— ez dute ondasun materialik bilatzen. Lokalismoa gairidituz mezua unibertsalizatu egiten dute. Horregatik da posible teoriarik hain urrun dagoen Hebe de Bonafinik horrekin konektatzea. Iruditzen zait jainko honek etorkizuna duela, hastapenetako Kristo bibentzial eta komunitarioak Erromatar Inperioko jainko militar eta interesatuen aurrean izan zuen bezalaxe.

kornerra

Mikel Elorza

Erregaliak

Aurten sobran izango ditu Olentzerok opariak. Gosea, diarrea, hiesa eta beste izurritez landa, aurten gerrek ere murriztu diote bezeria. Afganistanen edo Palestinan benetako fusilekin *jostatzen* dira haurrak, eta benetako sukaldeetan egindako opilekin egiten dute amets. Ez dute argi eta soinuak egiten dituzten trepetak nahi: argi eta zarataz betetako gauen izu dira. Argentinan ere ez dute geldialdirik egiten duenik: poltsa hustuko diote! Ez dauka erraza agintea hartuko duenak zezenari adarretatik heltzen: adarrak ere eroan dituzte herria deskapitalizatu dutenak. Espainian ikatza utzi dute, berriro ere, Entzutegi Nazionalan. Min egingo die, baina batzuei ez die axola: epaile *disidenteak* noiz konbentzituko da kontua, ez du zuzenbidearekin zer ikusirik. Beste 600etan ez, baina 6 etxetan behintzat bihar irriz kantatuko dute *Hator, hator*.